

# Pastoralaren mustra bat eman zen Maddalen Jauregiberriren bizilekuan

Eskiulatarrak etorri ziren Zibozeko Sibasea etxearen ondora, senitartekoek gonbidaturik

Allande Sokarros / Ziboze

Eskiula herriak Maddalen Jauregiberri pastoralara antzetzuko du uztailaren 23an eta agorrilaren 5ean. Gertakizun handi honen prestakuntzari eusten diote eskiulatarrak, mustrak (errepeticioak) astean behin nahiz birritan eginda. Hauetatik azkena leku ezohikoan egin zuten, Maddalen Jauregiberriren bizilekua izan zen Sibasea etxearen aurrean, Zibozeko pilota plazan.

ESKIULATARRAK euren herriko plazan biltzera ohitura daude, astean behin nahiz berritan, Maddalen Jauregiberri pastoralaren mustra edo errepeticioentzako. Joan den ostiral arratsean, ordea, leku ezohikoan egin zuten mustra: Maddalen Jauregiberriren bizilekua izan zen Zibozeko Sibasea jauretxearen aurre-aurrean, herrixka honetako pilota plaza tipian. Pastoralean aktore izango direnak Zibozerat etortze honekin, Pier-Paul Berzaitz obraren idazleak eta Jean Berdot errentak Maddalen Jauregiberriren sendiaren gonbitari baietz erantzun nahi izan zioten. Eta Maddalen Jauregiberri hore ezohiko hau merezi zuela ez dago zalantzarik.

Sibasea etxe handian mende erdi baino gehiago bizi izan bazen ere, Maddalen ez zen bertan sortu, Alozeko Jauregiberria etxean baizik, 1884. urtean. Gaztaroan Argentinan bizi izan zen, 1908 eta 1915 urteen bitartean nonbait. Txikita-



Michelle Etxeberrigarai, Maddalen Jauregiberri pastoralaren mustran.

tik euskalduna zen eta bere garaiko emakume gehienak baino aurrerakoa eta ausartagoa izan zen gaztetatik.

Hala, Ipar Euskal Herriko abertzaletasunaren sorkunde habia bezala ikus daitekeen Aintzina mugimenduan partaide izan zen eta Donibane-Lohizuneko Begiraleak kultur elkartearen lehendabiziko lehendakaria izan zen. Hark berak idatzi zituen gaur egun oraindik bizirik den elkarte honen araudiak. Ez zen hain ohikoa, denbora haietan, emakume bat izan zedin elkarte bateko buru...

Euskarari errotik atxikia zela, Jauregiberri Euskaltzaindiako urgazle ere aukeratu zuten.

Euskalduna eta euskaltzale sutsua zen Maddalen Jauregiberri, eta alderdi abertzale baten baitan eskuhartzerik ez bazuen izan ere, konpromiso argia izan zuen eta ez gutxizkoa. Ezen, Espainiako Gerra Zibilaren denboran, Bizkaitik eta Gipuzkoatik ihes egin behar izan zuten artean, hainbat eta hainbat lagundu zituen eta Sibasean bertan ere aterpetu. Pier-Paul Berzaitzek azpimarratzen duenez, gau-

zak argi ikusi zituen hasieratik, hots gerra zibil horretan euskal herritarrek zirela erasoak izan eta Errepublikaren alderdia hartuta, zuzentasunaren eta demokraziaren aukera egin zutela. Ipar Euskal Herrian, urte haietan, ez zen beharbada iritzi nagusia.

## Kantu-xaramelaz hazitako gualdia

Giro berezia zen Zibozeko pilota plaza oso txikian (Atharratetik bizpahiru kilometrora, Aloze herriari lotua). Antzinako pastoretan zegoen ikusleen eta aktoreen hurbiltasuna nabaritu zitekeen. Maddalen Jauregiberri zena senitartekoen presentziak ere zerbait berezia zekarren. Familia honetan euskara mintzatzen duenik ez badaiteke aurkitu ere, euskaltzaleak eta euskal kulturari atxikiak daudela ezin da ukatu. Alde horretatik,

Maddalen Jauregiberriren ildoari jarraitzen diote. Mustratik landa, gualdiak goxoki irauin zuen Sibaseakoek aktoreei, ikusleei eta kazetari afari hotz bat eskaini nahi izan baitzieten. Otordu hau Zuberoako ikastolakoek atondu zuten, betiere Jauregiberritarren eskariz. Gualdiak ilunaren barrena luzaz irauin zuen eta pastoraleko edo bestelako euskal kantutak aieratu ziren Zibozeko gaineko zeruetan. Maddalen Jauregiberri atseginez bizituko zuen zinez horrelako gualdia bat, euskal giroz hazia.

laburrean

A R T E A

## ■ Carlos Zirizaren 'Zezenari omenaldia' eskultura Iruñean paratu dute

HAINBAT urtez gordeta eduki ondoren, Iruñeko zezenplazaren ondoan paratu dute, azkenik, Carlos Zirizaren *Homenaje al toro* (Zezenari omenaldia) eskultura. 1996an egin zuen Zirizak lan hori, Iruñeko Udalak *Formak* izenburupean antolatu erakusketan parte hartzeko. Bi urte geroago, Udalak artista nafarraren eskultura erosi egin zuen. Bere lana abangoardiakoa izan arren, esanahia «oso garbi» dagoela esan zuen egileak atzo.

M U S I K A

## ■ Tapia eta Leturiaren emanaldi arrakastatsua PIR 2000 jaialdian

TAPIA ETA LETURIAK goizaldea arte dantzazki zuten PIR 2000 jaialdiaren karietara Jacan (Huesca) bildu zen jendea. Antolatuak jakinarazitakoaren arabera, 03:30 arte irauin zuen emanaldian entzuleek biziki gozatu zuten laukotearen doinuekin. Atzo goizean Xut Fanfarrea aritu zen, eta gauean Mikel Urdangarinek eskaini zuen kantaldia.

## ■ Gabriel Erkoreka konpositore gazteen topaketetan ariko da

GABRIEL ERKOREKA euskal konpositorea beste 29 musikagilerekin batera ariko da Malagan (Espainia), Konpositore Gazteen Ikasketa Geletan, heldu den astelehenetik uztailaren 11 arte. Konpositorea eta bere obra zikloaren barruan parte hartuko du.

IRAGARKI MERKEAK 943 300 222

**OSTIELA!**  
Sexualitate guztik  
TV KILLERS  
OSTIELA! aldizkariaren 18. alea kalean!

## OSTIELA! ALDIZKARIAREN 18. ALEA KALEAN!

"Komiki kutsua nagusi" *Euskal organu-eragileen*. Kultur hiruhilabetekari honen gai nagusia: KOMIKI MUNDIALAK. Aldizkari satirikoi honetako erdimonografiakoan, Prosper Merimée, Abul/Bernet (Torpado), Wolinski, Vuillemin, Al Voss, Paul Kirchner, Rober Garay, Asisko, e.a.-en komikiak. "Carmina Burana: demassazkoala", Patty Hearst eta S.L.A., G.G. *Allin: gorrotatu izateko jaiotako rockero destroya*, Dedalo & Ikaro (Maskarada), Fonollosa poeta katalan "galdua"... Joxe Azurmendi, Jon Arano, Juanbau Erauskin, Koldo Goitia, Gotzon Herrosilla, Jon Imanol Iturrioz, Mikel Markez, Uzkian Pot, Kapo Urrutia, Iban Zaldúa, e.a.-en lirika berezia.

Komunikabide-galduen sasoi hauetarako, "ganorabako ostixe" eros!

Merke-merke, 400 pzeta.-n salgai E.H. osoko liburutegia eta kioskoetan. Urteko harpidetza (4 ale) 1.600 pzeta (ale "atzeratuak" erdi-prezioan). Esku ezazu Ordiziako 131 p.k.-ra edo deitu (edo idatzi) 943-161835 tfno./faxera. ostiela@autovia.com

**OSKORRI**  
KONTZERTUTARAKO TELEFONO BERRIA 944 47 88 40

## BERAKO LABIAGA IKASTOLAK

irakasle bat behar du heldu den irailan martxan paratuko duen HAURTZAINDEGI-rako. Kurrikulumak bidaltzeko epea: Heldu den ortzeguna (San Fermin bezpera). Helbidea: bera@ikastola.net Altzate, 8 31780 BERA

## OPORRAK BELAUNTZIAN

12m. luzera UDAKO ITSASKETAK  
IRAILA  
BALEARRETTARA  
2-15era 3 PLAZA  
17-30era 4 PLAZA  
630.03.08.98

## 31 x 33 mm MODULO (Iparraldea)

Eguna: 92 l.  
Astea (6 egun): 85 l.  
2 aste (12 egun): 72 l.  
Hilabetea (24 egun): 57 l.